

HELBURUA:

-Ikasteko denbora ondo antolatzeko motibazioa, autoestimua eta kontzentrazioaren garrantziaz jabetzea.

-Kasuen bidez ikasleak hausartzea plangintzaren garrantziaz.

-Bere antolaketa burutzea.

SAIOAREN GARAPENA:

-Lehendabizi “arrakastaren giltza” jarduera burutu. Denon artean irakurri dokumentua eta bertan agertzen diren ariketak egin, bakoitzak berea, eta gero denen artean komentatu.

-Gauza bakoitzaren garrantzia argi izanda, lau kasu aztertuko dituzue. Testua denon artean irakurri eta ondoren talde txikitan bakoitzari dagozkion galderak erantzun, azkenik denon artean komentatzeko.

-Ondoren “ikasteko jarduerari buruzko hausnarketa” dokumentua denon artean irakurri eta bakoitzak bere aste baterako antolaketa egin ikastetxeaz gain dituzten jarduera guztiak kontuan harturik. Ikasteko/lanak egiteko geratzen zaien denbora hori nola antolatuko duten aztertzea (arratsaldean antolaketa ariketaren ondorengo pausua).

-Azkenik, “Ikasteko metodoa” irakurri denon artean. Hau da guk proposatzen dugun ikas metodoa, orokorrean gomendatzen dena. Badakigu, matematika eta filosofia ez direla berdin ikasten, baina oinarrian pausu hauek jarraitzea egokia iruditzen zaigu. Hemen zuen irakasgai unitate bat har dezakezue eta azaldu hori nola ikasi behar luketen, hau da, zuek gidatu irakasgai horren ikaskuntzan. Adibide bat eman gero beraiek egin dezaten berdina gainontzeko unitateekin.

“Karlosen ikas- txokoa”

Karlosek DBHko 1. maila ikasten ari da. Lehen Hezkuntzatik Bigarrenerako aldaketa dela eta, gauzak ez doazkio oso ongi. Lehen ebaluaketan hiru irakasgai gairitu gabe utzi ditu eta hori espero ez zuenez harrিতта gelditu da.

Karlosen ikasteko tokia, bere ikas-txokoa, oso atsegina eta erakargarria da. Bertan informazio pila bat dago musikari buruz, autoei buruz, motoei buruz, futbolari buruz, abeslari buruz, artistei buruz, ... hau da, txoko hori zaletasunez beteriko museo txiki bat bezalakoa da, jolasteko ordenagailua objektu nagusia delarik.

Normalean ohean etzanda ikasten du, musika jarrita, askotan bere amak bolumena jaistera behartzen duen arren, ondoko logelan dagoen arrebari molestia egiten baitio. Telebistan futbola baldin bada, ikasteari utzi eta partidua bukatzen den arte ez da berriz hasiko. Laburki esanda, ordutegi finkorik gabe ikasten du, gogoan duenean bakarrik, oso gutxitan alegia. Ikasten ari denean, ordea, askotan altxatzen da aulkitik, batzutan aita egongelan norekin ari den hizketan ikusteko eta beste batzutan hozkailutik zerbait hartzera joateko. Batzutan ere leihora hurbiltzen da bere bizilaguna den Susana bertatik pasatzen ote den ikustera.

Baina ebaluazioen aurreko egunetan, orduan bai, azterketak prestatzeko ikasi eta ikasi egiten du. Gauean oso berandu arte gelditzen da ikasten. Oso goiz jeikitzen da eta dutxa indartsua hartzen du ongi esnatzeko. Txuleta bat edo beste egiten du eta klaseko apunteak azken momentuan fotokopiatzen ditu, azterketa baino lehen hain justu. Klasean ez du apunterik hartzen, inoiz ez da liburutegietara joaten, eskemak eta laburpenak egitea denbora galtzea besterik ez dela esaten du...

KARLOSEK LEHEN EBALUAZIOAN GERTATU ZAIONA BIGARRENEAN BERRIZ GERTATZERIK EZ DU NAHI INOLAZ ERE. HORREGATIK ZUK ETA ZURE LAGUNEK LAGUNTZEA NAHI LUKE, HONAKO JARDUERA HAU EGINEZ:

“Karlosen ikas- txokoa”-ri buruzko lanketa (taldean egitekoa)

A.- Zein akats ari da egiten ikasle hau?. Aipatu hiru:

1.

2 -

3.

B. Zein aholku ematen dezaiokegu hurrengo ebaluaketan emaitza hobekak izan ditzan? Aipatu hiru:

1.

2 -

3.

ZEIN ONDORIO TARA IRITSI GARA GURE IKASTEKO DENBORAREN PLANGINTZA HOBETZEKO?

SANCHEZ ALVAREZ doktorea

Sanchez Alvarez doktorea autoestimua handiko zirujaua da, profesional handitzat jotzen baitu bere burua. Bere lan denbora nola antolatzen duen idatzita utzi du, eta ongi ala gaizki egiten duen zuzun baloratuko duzu. Esaldi bakoitzaren ondoren jarri **X** dagokion laukian.

	ONGI	GAIZKI
<i>Gogoak ematen didanean bakarrik egiten ditut ebakuntzak. Nire pazienteek badakite egiten dieldala, baina inoiz ez dut data finkorik izaten.</i>		
<i>Gaixo zailena beti azkena uzten dut, eta txanda egokitzen zaionean, oso nekatuta nagoenez, nahiago izaten dut ez artatu.</i>		
<i>Batzutan, dena prest eta kirolfanoan nagoenean, ez naiz inspiratuta sentitzen eta hurrengo egunerako uzten dut ebakuntza.</i>		
<i>Askotan ebakuntza egiten hasi eta bost minutu pasata utzi egiten dut atsedena hartzeko.</i>		
<i>Batzutan orduak eta orduak ematen ditut lanean, minutu bakar batez ere gelditu gabe, ebakuntzak egiteko epeak hainbeste luzatu ditudanez ia amaitu baitira gaixoen bizitza salbatzeko aukerak, baina, hala eta guztiz ere, ia beti salbatu izan dut norbait.</i>		
<i>Oro har, hilabeteak pasatzen ditut ebakuntzak egin gabe, baina oporren aurretik korrika eta presaka egiten ditut.</i>		
<i>Askotan gaixo bati ebakuntza egiten hasi behar nahizenean ez dakit non, gorputzaren zein aldetan aritu behar dudan.</i>		
<i>Oro har, inoiz ez dut ideia handirik izaten aurrean dudan lanari buruz, nahiz eta ebakuntza egiteko pazienteak zain ditudala jakin.</i>		
<i>Batzutan hamar ordu erresebatzen ditut ebakuntza oso erraz baterako.</i>		
<i>Beste batzutan hamar minutu besterik ez dut erresebatzen ebakuntza zail baterako.</i>		
<i>Ebakuntza baten erdian telefonoz deitzen didatenean, gelditu egiten naiz jakina, ziur aski garrantzitsuagoa izanen baita egiten ari naizena baino. Gauza bera egiten dut hitz egiten badidate edo egin behar dudan zerbait oroitzen badut.</i>		
<i>Ebakuntzan ari naizenean gustukoa dut asteburuan lagunekin zer egiten dudan pentsatzea. Horrek denbora errazago pasarazteko balio dit.</i>		
<i>Ebakuntza egin behar dudanean ez dut inon apuntatzen, edo bestela segituan galtzen zaizkidan papertxoak erabiltzen ditut, baina ia beti gogoratzen naiz..</i>		

Sanchez Alvarez doktorearen dokumentua lantzeko

- 1) Pentsatu ea Sanchez Alvarez doktoreari zuri ebakuntza egiten utziko ote zeniokeen ...

- 2) Orain ariketa pertsonalagoa eginen dugu: zirujauaren esaldiak berriz irakurri, baina aldaketa txiki batzuk eginez:
 - **ebakuntza** dioenean, irakurri **ikasi/lan egin**.
 - **gaixo/pazientea** dioenean, irakurri **materia/irakasgaia**.

- 3) Era berean, pentsatu esaldi berriak zuri egokitzen ote zaizkizun. Idatzitako **Ongi** edo **Gaizki** bakoitzaren ondoan idatzi **BAI** esaldiak zuretako balio badu, edo **EZ** kontrakoa bada.

Elena: ikasi eta kirolaria izan

Elena DBHko 1. maila ikasten ari da. Igeriketa oso gustukoa du. Egunero joaten da igerilekura bere taldekideekin entrenatzera. Gainera, txapelketak direnean beste hiri batzuetara joan behar izaten du asteburuetan, lehiaketetan parte hartzera.

Hala ere, Elena ez dago prest igeriketa bere ikasketetarako arazo izan dadin. Horregatik, denbora ongi antolatzea erabaki du, bi gauzetan, ikasketetan eta igeriketan, problemarik gabe aritu ahal izateko.

Arratsaldero, entrenamendura joan baino lehen, ordu eta erdi ematen du goizean klasean ikasitakoa birpasatzen. Larunbatetan ere ikasi egiten du eta, oraindik entrenatzeko, bere familiarekin egoteko eta lagunekin ibiltzeko denbora dexente gelditzen zaio.

Txapelketa duenean asteburu osoa eman behar izaten du bidaiari eta probetan, eta ezin izaten du ikasi. Horrelakoetan astean zehar gehixeago ikasten du desoreka hori konpensatze aldera. Elena pozik dago bere bizitzarekin. Zehaztu genezake Elenak zergatik lortzen duen arrakasta?

**“Elena: Ikasi eta kirolaria izan” dokumentuari buruz
talde lanean aritzeko**

A.- Zuen ustez, zergatik doa ongi Elena bere ikasketetan?. Zehaztu hiru arrazoi:

1.

2.

3.-

B.- Zuen ustetan, Elenak egiten duena zaila ote da? Zergatik?

1.

2.

Gure ikasteko denboraren plangintza hobetzeko zein ondorio atera ditugu?

JUAN MANUELEK ARAZOAK DITU.

Juan Manuel Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila ikasten ari da. Gutxiegi edo suspentso zenbait ateratzen ditu gehienetan, juxtu-juxtu aurrera eginez. DBH bukatu eta gero lanean jarri nahi duela dio. Autoekin zerikusia duen zerbait egin nahi luke, oso gustukoak dituelako kotxeak eta ez duelako ikasi nahi: ikastea ez du atsegin.

Oro har, klasean galdetu behar diotenean bakarrik ikasten du, edo ebaluaketak iristerakoan. Orduan bai; orduan, berak dioen bezala, “topera” ikasten du: liburua eskuetan duela une guztietan, atsedendietan, bazkaltzen duen bitartean edo bazkal ondoren arratsaldeko saioa hasi baino lehen gelditzen zaion denbora apur horretan ere. Baina ahalegin hauek guztiak eginda ere, ez zaio aski eta suspenditu egiten du.

Etxean ikasten duenean toki ezberdinetan egiten du, nahiaren arabera. Batzutan egon gelan. Bertan besaulkiak daudenez eroso dagoela esaten du; gainera, noizean behin telebista piztu dezake, programa interesgarri bat ikustearren, “*tartetxo bat besterik ez*”, berak dioen bezala. Egia esan, azkenean beti itzali behar izaten du amak errieta handia bota ondoren. Beste batzutan sukaldean ikasten du, bertan mahai handia eta eroso dagoelako. Bere logelan ere ikasi ohi du zenbaitetan. Ohean etzanda gustatzen zaio ikastea, irratia piztuta. Musikak ikasten laguntzen diola esaten du. Hori dela eta, aita haserretu egiten da berarekin. Logelako mahaian jarri eta irratia itzaltzera behartzen du, musikak arreta galarazten diolako, ilargian egoten baita musika izanez gero, eta azken finean hori baita suspenditzeko arrazoia. Baina ez daki zer egin.

Lagundu ahalko zenioke? Zer esango zenioke?

“Juan Manuelek arazoak ditu” dokumentua taldean lantzeko:

A.- **Zein akats egiten ari da ikasle hau?. Zehaztu hiru:**

1.

2.

3.

B. **Zein aholku emango zenizkioke hurrengo ebaluaketan bere emaitzak hobekiaz izan daitezela? Aipatu hiru:**

1.

2.

3.

Ikasten dugun bitartean gure antolakuntza hobetzeko zein ondorio atera dugu?

IKASTEKO JARDUERARI BURUZKO HAUSNARKETA

KLASEA – IRAKASLEA

- Egin itzazu proposatzen dizkizun lanak.
- Bilatu bere laguntza. Zalantzak kontsultatu.
- ARRETA JARRI ETA PARTE HARTU: Ahalegin txikiagoz hobeki ulertuko duzu. Gai bakoitza nola landu jakinen duzu.
- Noiz, nola eta zer egin edo eskatzen den jakinen duzu beti.
- **KLASEAK APROBETXATUZ GERO, %70 BAINO GEHIAGO IZANEN DUZU IKASITA.**

ETXEAN EGIN BEHARREKO LANA

- Toki eta ordutegi finkoa eduki eta saihestu arreta galarazten dizuten gauzak: irratia, telebista, leihoak ...
- **Arretaz emandako denbora laburra eta ongi aprobetxatua eraginkorragoa izanen da beti.**

IRAKASGAIETAKO LANAK EGUNERATUAK ERAMAN

- Klasean landutakoa birpasatu. Apunteak berrikusi, osatu.
- Klasean atera ez zaizkizun ariketak egiten saiatu.
- **Apuntatu zalantzak hurrengo klaserako: akatsetatik asko ikasiko duzu.**

KUADERNOA – APUNTEAK

- Idatzi data zure koadernoetan egunero.
- Ariketa bakoitzaren erreferentzia zehaztu (orrialdea, ariketaren zenbakia...).
- Irakasleak gehitzen duenaren argibideak idatzi.
- Ariketa berriak eta adibide interesgarriak gehitu.
- **ZUZENDU ARIKETAK. Posible bada, beste kolore batez.**

ZURE IKASTEKO MODUA BERRIKUSI

- Egin al dituzu koadernoan liburuan agertzen diren adibideak eta ariketak?
- Birpasatu al duzu etxean, egunero, zure irakasleak klasean proposatu dizuna? Zalantzak idatzi eta galdetu al dituzu?
- **Zure koadernoak birpasatzeko balio al ditu?** Gai bakoitzaren ariketak kokatzen laguntzen al ditu?
- Zure ustez, koaderno garbia eta ordenatua al duzu?
- Egiten duzunari buruzko azalpenak eta zergatiak idazten al dituzu koadernoan?
- Ariketa bat gaizki egin duzunean, ahalegintzen al zara akatsa zein izan den kokatzen?
- Hasieran ongi atera ez zitzaizkizun ariketak, denbora pasata, saiatzen al zara berriz egiten?
- Ikaskideren batek ariketa bat egiteko modu ezberdina adierazten badu, ahalegintzen al zara modu hori ulertzen eta zurearekin konparatzen?

NORBERAREN LAN PLANGINTZA

Ikasmaila: _____

ASTELEHENA		ASTEARTEA		ASTEAZKENA		OSTEGUNA		OSTIRALA		LARUNBATA		IGANDEA	
<i>Ord.</i>	<i>Irakasgaia</i>	<i>Ord.</i>	<i>Irakasgaia</i>	<i>Ord.</i>	<i>Irakasgaia</i>	<i>Ord.</i>	<i>Irakasgaia</i>	<i>Ord.</i>	<i>Irakasgaia</i>	<i>Ord.</i>	<i>Irakasgaia</i>	<i>Ord.</i>	<i>Irakasgaia</i>